

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1261

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 19koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta jakitera ematen baita Euskadin Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana.

Q sukarra zelula barneko *Coxiella burnetii* bakterio gram-negatiboak eragindako zoonosia da; beroarekiko eta lehorketarekiko oso erresistentea da, eta haizeak infekzio-fokutik zenbait kilometrotara eraman dezake. Q sukarra endemikoa da Europako zenbait eremutan, eta Osasun Publikoko arazo handi bihurtu da.

Q sukarra etxeko animalietan kontrolatzea funtsezkoa da gaixotasunak gizakiengan duen eragina murrizteko; horregatik, garrantzitsua da zaintza- eta kontrol-planak ezartzea, batez ere ustiatagietako detekzioan eta profilaxi- eta higiene-neurrietan oinarrituta.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuak xedatzen du Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari dago-kiola «landare eta animalien ekoizpen eta osasunari buruzko programa eta jardunak eta ekoizpen bateratu eta ekologikoak prestatu eta koordinatzea, hargatik eragotzi gabe lurralde historikoen eskumenak».

Aldi berean, Lurralde historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak bere 7.b.1 artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela garatzea eta betearaztea erakunde erkideek landare-ekoizpenean eta landare-osasunean eta animalien ekoizpenean eta osasunean emandako arauak.

Beraz, etxeko hausnarkarrietan Q Sukarraren prebalentzia murrizteko bide ematen duten ekin-tzak ezartzeko, eta, beraz, euskal biztanlerian agerraldiak izateko arriskua murrizteko, Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien zerbitzu teknikoek Euskadin Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolat-zeko Plana egin dute.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea eta argitaratzea.

Euskadin Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana onartzea eta argitaratzea Eusko Jaur-laritzan nekazaritzaren eta elikaduraren arloko eskumena duen sailaren hurrengo web-orrian: <http://www.euskadi.eus/plana/q-sukarraren-kontrola-eta-zaintzarako-euskadiko-plana/web01-a2nekabe/eu/>.

Bigarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Poli-tikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2020ko martxoaren 2a, astelehena

Hirugarrena.– Ondorioak.

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 19a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
JORGE GARBISU BUESA.